

## **FUNTSEZKO ELKARTEAK**

### **1-Hornitzaileak**

#### **Biltegiko hornitzailea.....**

2-

- Errestauranteak izango dira gure elkarte klabeak, errestauranteen produktuekin lan egingo dugu gure produktua probatzeko, horren truke akordio bat egingo dugu.
- Akordioa: gure akordioa 5 urtekoa izango da, akordio honen bidez errestauranteak haien produktuak utziko dizkigute prezio gutxiago batean eta guk haien produktuen publizitatea egingo diegu gure asmakizuna presentatzerakoan. Gure produktuak web gunean jartzerakoan bezeroak errestauranteen produktuak ikusiko dituztelako.
- (regi jatetxea, Basilisco, restaurante Aura, Arandia de julen etab.) , haiek publizitatea lortuko dute gure enpresarekin.

### **3- Funtsezko -bazkideak**

**Peio:** Bezeroekiko arretan lan egingo du. Haien kezkak entzuten eta arazoak konpontzen saiatuko da, telefono bidez eta mail bidez. Gainera, bezeroak webgunean egiten dituzten galderak erantzungo ditu. Baita ere, diseinua egingo du.

**Galder:** Finantziazioen arloan arituko da, zertan inbertitu behar den aztertuz, hileko gastuak gaindituko baditugun eta irabaziak izaten hasiko baditugu, kostuak murrizteko aukerak bilatu. App-a programatu egingo du, eta hilerro berriztu egingo du.

**Oier:** Biltegian arituko da, produktuak furgonetatik jaisten eta apaletan antolatzen, gero banaketa prestatzeko. Beste biltegi batean lan egin du, horrelako jarduerak egiten, beraz, esperientzia du.

**Markel:** Produktuen eskaerak jasoko ditu, ordenagailuaren bidez. Gero, eskaera guztiak antolatuko ditu eta Oierri esango dio ze produktu eskatu dituzte gero berak produktuak antolatzeko. Ekoizpenataz ere arduratu egingo da.

#### **4-Optimizazioa eta ekonomia funtsezko bazkideekin:**

Jatetxeekin lortuko diren akordioak lagunduko digu haien menuak zehatzagoak eta seguroagoak izatea. Haiek ikusiko dute bezero gehiago lortuko dituztela gure produktuarekin.

Jatetxeetatik aparte, bezero indibidualei salduko diegu online edo fisiko bidez horrela bezeroei haien kezkak edo beharrak argituko ditugu:

-Dieta orekatua bilatzen dutenei

-Alergia dutenei segurtasuna eskaini

-Osasuna arazoak dutenei konponbidea eman beharrezko elikagaiak zehaztuz

Biltegien alokairurako akordio bat egingo dugu, biltegi bat baino gehiago alokatzen badugu prezioa merkeagoa izango delako eta haiekin lotura sendoago bat sortuko da.

**5-Arriskuen eta ziurgabetasunaren murrizketa:**

Hasiera batean Bilboko jatetxe batzuekin akordioak egingo ditugu, ondorioz zirkulu bat itxiko dugu eta negozioan sartzeko hezia sendotuko dugu. Handituz joango da zirkulu hau enpresa handitzen den heinean. Jatetxeak diru-sarrera bat ziurtatuko dute hileroko, ondorioz konfiantza lortuko dute gure enpresarekiko, arriskuak eta ziurgabetasunak kenduko dizkiegulako gutxinaka.